

sagardo botila **sagardo eguna**



AURKEZPENA ① Arizkungo Jo Ta Jo elkarteak kideak sagardoa jotzen Sagardo Egunaren aurkezpenean. IMANOL OTEGI / ARGIAZKI PRESS

Usurbil, sagardoaren munduko hiruburua

Sagardo Egunak 25. urteurrena bete zuen herenegun, baina urte guztian hainbat ekitaldiren protagonista izango da sagardoa

② Sagardoak beti izan du berebiziko garrantzia Usurbilen. Horren lekuko dira aurki ditzaizun sagasti kopuruak, lanabesak, toponimia eta baserrietako dolareak. Azken horietako batzuk, duela hiru-rehun urtekoak. Bere egun bere-

zia ere badu sagardoak Usurbilen, eta orain dela 25 urtetik ospatzen da Baina aurren, urteurren biribil hori dela eta, Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak elkarteek urte guztian ospatu behar dela erabaki dute. Sagardo eguna ez, sagardo

urtea bizi dute, beraz, aurren Usurbilen.

Herenegun izan zen egun handia, mundiala hobeto esanda. Alde batek, ona, aparta eta bikaina gertatu zelako, eta beste-uk, munduko sagardoa dastatu zelako Usurbilen. Horretarako,

atzetik lan itzela dago, eta lana egiteko pertsona boluntarioak. Horietako bi dira Ane Loidi eta Ana Aizpurua, eta haiekin hitz egin dugu: «Normalean, otsailean hasten gara antolatze lanetan, baina aurren, 2005eko azaroan hasi gara. Astero bilerak egin di-

Helburuei dagokienaz, hone-

tugu, eta bertan zazpi edo hamar bi lagun besterik bildu ez bagara ere, gaurerako pertsona batzuk eta beste-rik inplikatu ditugu. Izan ere, dena 200 bat lagun eskertu ote daiteke horrelako egun bat. Bat-tek web orria egiten du (www.sagardobil.com), bestea ingeleseko kontakutuz arduratu da, prentsa harremanez beste bat, itzulpe-rik egiten eta abar. Mila gauza egin behar dira. Baina herriko jendeak ondo erantzuten du, Usurbilentzat hitzordu garrantzi-koa baita Sagardo Egunak. Orain dela sei urte, hainbat talde bildu, eta antolatu lanak bu-kun antzera egiteko. Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak El-karteak sortu zen. Izan ere, lau lan talde elkaru dira aurren antola- kuntzan. 1981ean Andatza kul- tur talde gisa hasi zirenak, Ana Aizpurua tarteko, eta geroztik adinak markatuta etorri diren erreleboak.

Egunarekin gozatzeko osagai asko izan ziren: sagardoaren in- guruko erakusketak, sagardote- giei buruzko informazioa, Gi- puzkoa osoko sagardotegietako sagardoak dastatzeko aukera, sagardoekin kategorian uzta- tzen diren mokadu goxoak, argi- tarapenak, sagarkiekin egindako gozoki aukera, dolareak lanean murtia egin eta zabaltzea, sa- gardo-botatzaleen lehiaketa eta egun osoan jai-giro aparta. Aurren, gainera, egun mundiala izan dela erakusteko, bazkari mun- diala izan da, 400 lagun inguru- koa; tokienentzat ere izan da sa- gardo egun berezia, sagardoe- kin lotutako lan eta jolasak uztartuta; eta Askatasun plazan mundu guziko sagardoa eta kul- turak dastatzeko aukera, kultura beti baitoa sagardoari itxaritu- Errusia, Kanada, Irlanda, Alema- nia, Txile, Argentina, Maroko eta beste hainbat herrialderen edari eta kulturak bildu zituen Usurbil- lek.

Helburuei dagokienaz, hone-

ANTOLAKUNTZA Azaroan hasi ziren Sagardo Egunak prestatzen, eta 200 bat lagun izan dira antolaketa lanetan

laxe mintzo dira Ane eta Ana: «Sagardoari prestigioa eman nahi diogu. Ez dela edozein mo- dutan edateko edaria erakutsi nahi gure, arau batzuk ezagu- tarazi. Gurea den produktu natu- ral bat jendeak ezagutu dezan. Sa- gardoaren mundua era zabalean aurkeztu nahi dugu bestalde, hau da, sagarra eta sagarkien presentzia ere indartuz. Eta, nos- ki, sagardoa kultura baten ba- ruan kokatu nahi dugu, base- rrietako edo bertsoaritzako gi- roak osatzen duten giro horretan. Eta horrekin guztia- ren batera, sagardoa Usurbilen ezaugarri bat dela azpimarratu nahi dugu, herriaren ondare bat», adierazi dute.

Ekintzak urte osoan

Baina, esan bezala, sagardoari omenaldia urte guztian egiten ari dira Usurbilen. Aurrean ha- goi, asteetan zehar *Sagarra*, sagardoa eta sagarkiak su- ritza ikastaroa eman du Xabier Tello sukaldariak. Edorta Agirrek argitaratu zuen *Sagardoa* plate- rean liburua oinarritut hartuta. Horrez gain, sagardoren dastatze didaktikoa egin zuten, maiatza- ren 12an, edari hau dastatzen erakusteko. Eta erakusketak bat ere zabalik dago. Bertan 25 urte- an Sagardo Egunaren landutako gaiak daude ikusgai. Azken urte hauetan, esaterako, elkarteak osatutako erakusketak honako hauek izan dira: *Sagardogintza* tradizioa; *Sagardogintza in- dustriala*; *Sagardogintza* sa- garra; *Sagardoa*, sagardoaren distilatua eta Usurbilgo dolareak.

UEUko ikastaroa

Hemendik aurrera ere geratzen da ekitaldirik sagardoa gustuko dutenentzat. Udako Euskal Uni- bertsitatean, adibidez, ikastaro



GIRO EDERRA ③ Urtero jende ugari joaten da Usurbilera. Aurren urte osoan izan dira ekitaldiak. ANTONI CANELLADA / ARGIAZKI PRESS

interesgarri bat emango da uz- tailaren 12 eta 13an. Izanburua esanguratsua jarri diote. *Sa- gardo*, *txotxetik haragokoa*. Izan ere, sagardoa kulturarekin lotzea da asmoa. Ikastaro arrunta izan- go da, ez batera. *Sagardogintza* eraz eta erakargarri batean. Ber- tan hitzaldiak izango dira, sa- gardoekin lotutako gaiak jorratu- ko dituzte, eta nahiz eta ikasta- roa Baionan izan, Usurbilera bisita izango da bertako base- rriek etxeko tresneriarekin sa- gardo nola egiten duten ikuste- ko. Ipar Euskal Herriko sagasti batzuk ere izango dira ikusgai, eta bertako sagardogileek azal- penak emango dituzte. Bertso afaria ere izango da ikastaro ba- rruan, Andoni Egaña bertan de- lant.

Ekainetik aurrera, berriz, igan- de goizeko irtenaldiak antolatu- ko dituzte Sagardo Egunaren La- gunak elkarteek. Zazpi irtenal- di izango dira guztira abendu- arte. Hilabeteko hirugarren igan- deetan izango dira bisita gidatu horiek, eta Usurbilgo sagastiak eta baserriak ikusiko dituzte. Izan ere, nekazaritza bizimodu- arren garaian, Gipuzkoa osoan sa-

gardoak garrantzi handia izan zuen. Baserri orok zituen bere sagastiak, eta ia gehienek dola- rea. Garai bateko ardoak eta gaurko garagardoak bezala zu- ten nagusitasuna etabaz bertako- k. *Sagardogintza* tradizioa izan- zen, giro hartara salto egin nahi dute. Baserrietan lasai gelditu, bazkaldu eta bertako sagardoa dastatu ahal izango da. Ez da, alegia, mendizalea izan behar bisita hauetara animatzeko.

Beste ekintza batzuk ere anto- latzen ditu elkarte honek urtean zehar. Hala nola, Usurbilgo ba- serrietako dolare eta sagar ba- rietateen artxiboa, berripaper bat argitaratzea, Barrikotea (abenduaren 28an), etab.

Usurbilgo Sagardo Egunaren egoterik izan ez zutenek orain- dik ere badute aukerarik beste herri batzuetan. Maiatzaren 27an, Oñartzun izango da Ea- gardo Egunak; arratsaldean izan- go dira ekitaldi eta festa giro na- gusia. Eta hurrengo hilabetean, berriz, Ipar Euskal Herriaren txanda dator: ekainaren 3an, Baionan izango da Sagardo Egu- na, eta 17an, Hendaian, arratsal- dean bietan ere.



SAGARDOA ④ Herri ezberdinetakoak zeuden. ANTONI CANELLADA / ARGIAZKI PRESS

SAIZAR

Sagardo Naturala

Kale-zahar Auzoa, 39
USURBIL

Tel 943 362 228

[WWW.SIDRASSALZAR.COM](http://www.sidrassalzar.com)

LIZEAGA

Astigarraga

**Eska ezazu Sagardoa !
eta etiketan LIZEAGA
jarriko balu askoz hobe.**

**EDAN ETA EMAN
EDATERA**